

Ire ots zolia, zein ixilletan
ete yakuk biur negar-xaflatan?
Ikusi ta entzun dok dana
su, ¡jainko-belatx, ¡tz bakana.

Ire soiñu otsak, sorgin egazka,
birao biurtu dozak goi-deika,
giza-osto arte berdean
erdi urtuz, nora ezean.

Etsai-gerizak nai ditu deuseztu,
okerra zuzen-az, naspilla uxatu...
Giza-biotzen mosu otsa
dau bere kantagai mergatza.

Bakar-zale danez urondo barna
doa, joan eta joan arrotxa,
anai-lokarriz batu nairik
berbizte ezkutua osorik.

Ukakor ez, baiña dogu baikorra,
bere nortasuna ezta txikarra:
gorputz, adi-eragin, sorpen,
sorkariz sorkarizko naimen.

Asmoaren jitez sortzaille zara,
geroan buruz zuk dozu gara;
«nor» ta «ni» naspilla egiñik
ba-dogu barrun larri-miñik.

Adore ta fede aundiz ornia,
atsegiñez eta miñez josia,
al dakiz ba olerkariak
gero latzaren itzuliak?

Ez ixur, koplari, negar-tantarik,
ez bait dogu orrein bearrik.

Ik illeta muzin ezkerro,
guk be ziur begian malko.

Baiña, olerkari, jo ik doiñua;
ots, kanta, *garrasi*; *esna* mundual
Oa leiatsu euskal lur gaindi,
ta egik didar, oiu zoli!

Nekatua ete? Ar opor doa
ta ¡ñarros bideko autsaren loa;
uri ta mendi, gar ta kemen,
bota gero didarra ozen!

IBAI-ERTZ ZEAR

Ibai-ertz zear, biok...
Eskutik oratu
t'ezari-ezarian
ninduzun sorgindu.
Eskuan zeukan atza
—ustez lore-buru—
¡gartzeke, gozoro,
neutzun nik zanpatu.

Esku-andel zear zuk
neure eskua arturik
zeure atz txikiakin
egin zeustan gilik;
nik, ostera, ixillean
zorroa kendurik
eskua emon neutzun
gose atsegiñik.

Ta esan zeustan: «Ba-dot
gaur zertxobait zutzat».

Eta irakurri zeustan
 leun, olerkitxo bat:
 «Eder, guri —iñoan—
 biotz doe dakat;
 ire begien soa
 bedi beti nitzat».

Negar-tanta bi jausi
 yatzuzan samingai.
 Goian odei zurbillak
 ebiltzan alderrai;
 illargi tristepean
 illunak axe paga!,
 ta barne-argi gozoz
 didiz artzen ibai.

Zumardi itzaltsura
 jo gendun geldiro...
 Zugatz erpin makurrak
 ixil eben giro;
 lur bustira eroriz
 ostoak leunkiro,
 barne-muiñea yatzun
 nahasi biziro.

«Au poza!» esan zeustan,
 eta antxe, ixillean,
 egon giñan luzaro
 ostope onean,
 barru-oiñazearen
 oiū bigunean,
 pozaren intziria
 txastatuz betean.

AMAREN BIOTZA

Ezkara gaur zurtzen
 —oi, biotz gogor!—
 naita jazokuna
 izan arrigarri,
 anker ta doillor.

Egi ala ipuin dan
 ez dakit garbi,
 baiña ba-ziran bein
 erritxo batean
 neska-mutil bi.

Batak naiz besteak
 ba-eben sukar:
 bizi kutun eben,
 lilluratzeraño,
 gazteak alkar

Eguerdi epel
 zoragarria,
 txoriak eztabe
 oindiño atertu
 goiz-eresia.

Zumardi osoa
 itzalak dauka;
 gazte biak bertan,
 maite-uruna eioz,
 ixil-mixilka.

Izamen txikorrez
 neskak diñotsa:
 —«Orren maite ba'nok
 ene izpi aratza,